

Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4747

EBAZPENA, 2010eko uztailaren 26koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Laudio-ko (Araba) Goikoplazako 16. zenbakian den Etxebarri baserria, monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Laudioko (Araba) Goikoplazako 16. zenbakian den Etxebarri baserriak daukan kultura-interesa aztertutik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Laudioko (Araba) Goikoplazako 16. zenbakian Etxebarri baserria, monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskineko mugaketarekin eta II. eranskineko deskripzioarekin bat etorrituz.

Bigarrena.– Laudioko (Araba) Goikoplazako 16. zenbakian Etxebarri baserria Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedientea jendaurrean jartzea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei, Laudio-ko Udalari, Arabako Foru Aldundiko Euskera, Kultura eta Kirol eta Toki Administrazioaren eta Lurralde

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4747

RESOLUCIÓN de 26 de julio de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del caserío Etxebarri, sito en Goikoplaza, 16 de Llodio (Álava).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el caserío Etxebarri, sito en Goikoplaza, 16 de Llodio, atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del caserío Etxebarri de Llodio (Álava), conforme a la delimitación que figura en el anexo I y la descripción obrante en el anexo II.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del caserío Etxebarri de Llodio (Álava), para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Llodio y a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Lo-

Orekaren Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu eta egokituz jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

Laugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzea, jende guztiak Ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 26a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

Mugaketa.

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugatutako eremuaren barne geratzen dira, bai eraikina bera, bai eraikin horren ingurua. Horrela, bada, mugaketa-eremuak honako muga hauek ditu: NEn, baserriaren lurrek ondoko errotarekin duten muga; NWn, fatxadarekiko lerro paraleloa, 20 m-ra; SWra, baserriaren lurrek ondoko etxebizitzarekin eta haren eraikin osagarriekin duten muga, eta SEN, Goikoplaza kalearen espaloia.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Mugaketa hori proposatzeko arrazoia izan da beharrezko ikusten dela Laudioko Etxebarri edo Goikoplaza 16 baserriaren ingurumena eta ikus-bista zaintzea. Ingurunearen mugaketak —beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko— baserriaren inguruko lurren eta eraikinerako sarbidearen babesa dakar berekin, betiere, baserriaren bereizgarritasunak kontserbatzeko. Horregatik, mugaketa honek baserri-eraikina ez ezik inguruko lursailak ere bereganatzen ditu.

cal y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava y al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Cuarto.— Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de julio de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ANEXO I


Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, al propio edificio en sí y, por otro, al entorno que lo circunda. Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al NE el límite de los terrenos del caserío con el molino adyacente; al NW una línea paralela a la fachada y distante 20 m; al SW el límite de los terrenos del caserío con la vivienda adyacente y sus edificaciones auxiliares; y al SE la acera de la calle Goikoplaza.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Etxebarri o Goikoplaza, 16 de Llodio. La delimitación del entorno, necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío, ocupados por los terrenos y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello, esta delimitación incluye, no sólo la edificación del caserío propiamente dicha, sino también el entorno que la rodea.



ESKALA / ESCALA

10 0 10 20 Meters



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondasunen Zuzendaritza
Kultura Ondasunen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano:

GOIKOPLAZA 16KO BASERRIA

Babes eremuaren mugaketa

Delimitación del entorno de protección

Lurraldea / Territorio:

ALAVA

Data / Fecha: 05/12/2008

Udalerría / Municipio:

LLODIO / LAUDIO

Eskala / Escala: 1:1000

II. ERANSKINA

Deskripzioa.

Baserri hau –hari buruzko erreferentzia batzuk XVI. mendekoak dira– Laudioko hegoaldean dago kokatuta, Nerbioi ibaiaren ondoan dagoen eremu lau batean, eta fatxada nagusia, hain zuzen, alde horretara du. Oinplano laukizuzena du, 26,5 m x 19,5 m-koa. Beheko solairua, lehenengo solairua eta ganbara dauzka. Beheko solairua eta lehenengo pisua harri-hormaz eraikiak daude; ganbaran, berriz, hegala batzuen gainean dauden hormak, adreiluz betetako zurezko bilbaduraz. Estalkia bi isurikoa da, eta gailurra, fatxadara nagusiarekiko perpendikularra.

Eraikina lau hormartek osatzen dute. Berezitasun hau du: erdiko hormarteen hegala alboko hormartena baino garaiagoa da, eta horrela barruko beharretara egokitzen da, halako eran non, egongelak alboko logelek baino altuera handiagoa duen eta altuera handiagoa den estalkia jaisten den ganbarako aldeetan.

Fatxada nagusiak lau leiho ditu, bai lehenengo pisuan, bai ganbaran. Beheko solairuan, portale bat dago, eta handik etxebizitzetara sartzen da; hasiera batean bi etxebizitza zeuden, baina gero zatitu egin ziren, eta sei egin. Fatxada portalearen erdialdean sostengatzen da, harrizko zutabe baten gainean. Portalearen alboetan, bi leiho daude alde banatan.

Alboko eta atzeko fatxadetan, berriz, zur-arotzeriako bao batzuk daude.

Fatxada nagusiko goiko solairuetako leihoak inguratuta daude, eta lehenengo solairuko bi leihoen gainean frontoi bat irudikatzen da.

Barrualdeko egitura zurezkoa da, eta teilatu-hegalari eta beste hegalei beso batzuek eusten diete.

Aurrealdean, hegala gainean, armari bat dago, eta beste armari txiki bat solairu nagusian, leihoen parean.

Baserriaren ezaugarri nabarmenenetako bat fatxadan dituen polikromiak dira; ustez XVI. mendekoak, margolan horiek Juan de Armona maisuarenak direla dirudi; margolari arabar horrek Urduñan izan zuen tailerra, eta elizak margotzen izan zen aditua. Margoak igeltsuzko geruza biren gainean marratzutakoak dira, eta zenefa dekoratiboek osatzen dute, teilatu-hegalen eta irtenguneen azpian; horiekin batera, puntaleen gaineko beteguneetan era askotako figurak ere ageri dira. Zenefetan gehien ageri diren irudiak ondorengoak dira: kiribildurak eta lore-sorten itxurako marrazkiak, erronboen sareak, aingeruen buruak erakusten dituzten frisoak, sokak, arrosarioak eta bolak. Betegarrietan, berriz, ondorengoak ikusten dira: bustoak, fantasiatzko izakiak, eta baita lore-sorta

ANEXO II

Descripción

Este caserío, del que existen referencias que se remontan al siglo XVI, está situado al sur de la localidad de Llodio, en un terreno llano junto al río Nervión hacia el que se orienta su fachada principal. Es de planta rectangular, de 26,5 m x 19,5 m. Consta de planta baja, planta primera y desván. La planta baja y el primer piso están contruidos de mampostería y, en el desván, las paredes que descansan sobre voladizos, de entramado de madera relleno de ladrillo. La cubierta es a dos aguas con la cumbre perpendicular a la fachada principal.

El edificio está formado por cuatro crujías. Tiene la particularidad de que el voladizo de las crujías centrales es más alto que el de las laterales, adaptándose así a las necesidades interiores, de forma que la sala tiene mayor altura que los dormitorios laterales y la altura en las zonas del desván donde baja la cubierta es mayor.

La fachada principal tiene cuatro ventanas tanto en el piso primero como en el desván. En la planta baja se abre un portalón desde donde se accede a las viviendas que, originalmente, eran dos, pero que más adelante se dividieron formando seis. La fachada descansa en el centro del portalón sobre una columna de piedra. En los laterales del portalón hay dos ventanas, una a cada lado.

En las fachadas laterales y posterior se abren varios huecos con carpintería de madera.

Las ventanas de los pisos altos de la fachada principal están recercadas y sobre las dos ventanas centrales del primer piso se dibuja un frontón.

La estructura interior es de madera y el alero y los voladizos están sostenidos por tornapuntas.

En la parte delantera, sobre el voladizo, hay un escudo de armas y otro pequeño escudo en el piso principal, a la altura de las ventanas.

Una de las características más destacadas del caserío son las policromías que decoran la fachada datadas hacia mediados del siglo XVI. Estas pinturas se han atribuido al maestro Juan de Armona, pintor alavés con taller en Orduña, especialista en pinceladura de iglesias. Las pinturas, realizadas sobre doble capa de yeso, se desarrollan en forma de cenefas decorativas debajo de aleros y voladizos y diferentes figuras que aparecen en los rellenos sobre los puntales. En las cenefas los principales motivos son roleos y rameados, redes de rombos y frisos con cabezas de angeles además de sogueados, cuentas de rosario y bolas mientras que en los rellenos se pueden ver bustos, seres fantásticos y también unos ramilletes a los que se ha atribuido una cronología más reciente, posiblemente

batzuk ere; azken horiek berriagoak direla uste da, seguru asko XIX. mendekoak. Gehien agertzen diren koloreak gorria, okrea eta beltza dira.

Eraikinaren eta margoen gaur egungo egoera txarra izan arren (etxean sutea izan zen joan zen urtean), margoak lehengoratu egingo balira eta baserria konpondu, eraikinaren balio historiko, arkitektoniko eta etnografikoaz gainera, XVI. mendeko marrazki horiek ere izango genituzke, eta guztiz bereziak direla esan behar da.

del siglo XIX. Los colores que predominan son rojos, ocres y negros.

A pesar del actual estado de la edificación, que sufrió un incendio el pasado año, y la situación de deterioro de las pinturas, la restauración de las mismas y la rehabilitación del caserío posibilitaría tener un ejemplo magnífico en el que a los valores histórico-arquitectónicos y etnográficos de la construcción se añade la presencia de estas pinceladuras del XVI que se puede considerar excepcional.